

## NIKOLAS LEKUONA III. ARGAZKI LEHIAKETA (ESTATU MAILAKOA)

### Oinarriak

Argizaiola lehiaketaren sailkapenerako baliagarria. (001/2014)

### Parte-hartzaileak

Espanian bizi den edozein argazkizalek hartu ahal izango du parte lehiaketa honetan.

### Gaiak

- Irekia
- Euskal Herriko herri-kirolak (Sari berezia)

### Modalitatea

Zuri-Beltz edo koloretan, nahi bezala. Paperean aurkezturiko lanak bakarrik onartuko dira.

### Lanak

Gai libre: Aurrez saritu gabeko 4 argazki gehienez, argazkilari bakoitzeko.

Gaia Euskal Herriko herri-kirolak: Aurrez saritu gabeko 3 argazki gehienez, argazkilari bakoitzeko.

### Formatua

Tamaina librea baina 40x50 ko passepartout-ean muntatuak. Katalogorako aukeratzen bada derrigorrezkoa izango da 300ppp-ko erresoluzioan eta zm-tan neurri bera duen artxibo digitala bidaltzea CD batean. Antolatzaileak horren berri emango dio argazkilariari.

Aurtengo ekitaldian, aurkeztutako lan guztiekin album digital bat sortzea gustatuko litzaiguke (edo baimena ematen diguzuenekin behintzat) jendeak lehiaketan parte hartutako lan guztiak ikus ditzan. Zuen lanak album honetan ipintzeko baimena ematen baduzue, zuen artxibo digitalak zuen izena zehaztuz [ortzadarordizia@gmail.com](mailto:ortzadarordizia@gmail.com) helbidera bidali, gehienez 1024pixeleko tamainan eta gehienez 500Kb-ko pisuarekin, CD batean lanekin batera bidali ditzakezue.

### Identifikazioa

Argazki bakoitzaren atzealdean, Argazki bakoitzaren izenburua eta argazkilariaren identifikazioa agertuko dira.

### Bidalketak

Gastu gabekoa, inskripzio fitxa behar den bezala beteta eta sinatua, hurrengo helbidera:

ORTZADAR ORDIZIA ARGAZKI ELKARTEA

79 zenbakiko Posta kutxatila

20240 Ordizia

GIPUZKOA

### Aurkezteko epeak

Azken eguna, 2014ko Apirilaren 18a. Postaz bidalitako argazkientzako, zigilu-markaren data hartuko da aurkezpen data bezala.

## **Epaimahaia**

Argazkilaritzan ezagunak diren pertsonak osatuko dute, **eta erabakia** aldaezina izango da.

## **Sariak**

### **Gai librea:**

Sari Nagusia: ..... 300 Euro eta garaikurra

Bigarren saria: ..... 200 Euro eta garaikurra

Hirugarren saria: ..... 100 Euro eta garaikurra

Herrikoen saria: ..... 100 Euro eta garaikurra

### **Gaia Euskal Herriko herri-kirolak (sari berezia):**

Sari berezia: ..... 300 Euro eta garaikurra

Argazkilari bakoitzak ezingo du sari bat baino **gehiago** irabazi, sari berezia kenduta.

## **Sarien banaketa**

Sariak Barrena Kultur Etxean **banatuko** dira **2014ko maiatzaren 30ean, 19:00etan**.

## **Erakusketa**

Lanen **aukeraketa** bat, Barrena Kultur Etxean egongo **da ikusgai ekainaren 2tik ekainaren 20ra arte**. Ordutegia **18:00etatik 20:00etara** izango da. Igandeak itxita.

## **Lanak itzultzea**

Uztaitetik aurrera itzuliko dira, **erakusketa amaitu** eta gero.

## **Oharrak**

Lehiaketa honetan parte hartzeak, oinarri hauek onartzea dakar. Hemen agertzen ez den edozein gorabehera sortuz gero, antolatzaileek erabakiko dute zer egin horren inguruan.

Saritzen diren lan guztiak antolatzaileen esku geratuko dira, helburu komertzialik gabe erakutsi edo argitaratzeko eskubidea ere berea izango da, **eta beti egilearen izena aipatuko da**.

Parte-hartzaileak, aurkeztutako argazkien irudi eskubide **eta jabetza** intelektualari buruzko legezko xedapenak betetzearen ardura bere gain hartzen dituzte. Horrekin batera, lehiaketaren esparruan eta oinarrien eremuan, parte-hartzaileek adierazten dute argazki hauen zabalpenak edota erreproduzioak ez diela hirugarrenei kalterik egiten, eta **gai honen inguruan sor daitezkeen ardura guztiak bere gain hartzen dituzte**.

Antolatzaileek ez dute bere gain hartuko, euren borondatearen kontra **gerta daitezkeen** argazki galtze edo hondatzerik, hauen erabilpenean ahal den kontu handiena jarriko delarik.

Edozein **zalantza** edo kontsultarako:

[ortzadarordizia@gmail.com](mailto:ortzadarordizia@gmail.com)

666 61 05 93 - 656 72 63 27